

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2017 urterako zerga-ordenantzen aldaketak hasiera batez onestea

Udalbatzak, 2016ko urriaren 26an egindako bilkuran, 2017rako zerga-ordenantzen aldaketak hasierako onestea erabaki zuen:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.
- Zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.

Udal Ogasuna arautzen duen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazten dugu hasierako onetsitako zerga-ordenantzen aldaketaren espediente osoa udal bulegoetan duzuela ikusgai; horrela, interesdunek espedientea azter dezaten eta hogeita hamar eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Agerian uzten da, erabaki honen aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, jendaurreko epea igaro ondoren, behin betikotzat hartuko dela.

Ondategin, 2016ko azaroaren 2an

Alkatea

MIKEL LAS HERAS MTZ. DE LAPERA